**2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010**

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Zerbitzu Orokorrak programak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskuduntzetan barne hartuta dauden zentro, zerbitzu eta programen funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren euskarri operatibo guztiak modu zentralizatuan kudeatzen ditu. Gizarte zerbitzuetako idazkaritzaren jarduerarekin zuzenean erlazionatuta, programa horrek erakunde autonomoaren jarduera egokia bermatzen du.

Honakoak daude programa horretan: Zuzendaritza Gerentzia, Ekonomiaren eta Aurrekontuen arloko Zuzendariordetza Teknikoa, Langileria Arloko Zuzendariordetza Teknikoa, Antolakuntza eta Informatika Arloko Zuzendariordetza Teknikoa, eta Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzako Buruzagitza.

Zuzendaritza Gerentziak erakundearen programetan garatu beharreko funtzioen eta helburu propioen zuzendaritza, antolaketa eta ikuskapena gauzatzeko funtzioak barne hartzen ditu.

Ekonomiaren eta Aurrekontuen Arloari dagokionez, kontrol ekonomikoari eta aurrekontuaren kontrolari buruzko jarduerak gauzatu dira, gastu eta sarreretako agiri fiskalizazioa eta kontabilitate erregistroa egin da, eta beharrezkoak diren aurrekontu aldaketa guztien izapideak eta kontrola eta erakunde autonomoaren kontuen likidazioa egin dira. Hilean behin aurrekontuaren gauzatze egoerari buruzko informazioa eman zaie gastuak kudeatzen dituzten zentro guztiei, bai eta zuzendaritzari ere, jakinaren gainean egon daitezen eta horren arabera jardun dezaten.

Langileria Arloko Zuzendariordetza Teknikoari dagokionez, Diputatuen Kontseiluko azaroaren 30eko 60/2010 Foru Dekretuaren bitartez langileen zerrenda berria onartu zen. Diputatuen Kontseiluak -432/2010 Erabakiaren bitartez- GOFEko langile funtzionarioen ordainsarien doikuntza onartu zuen. 2010eko abenduaren 19ko 132. ALHAOn, Diputatuen

### I. MEMORIA

El El programa denominado de Servicios Generales gestiona de forma centralizada la práctica totalidad de los soportes operativos que se hacen necesarios para el correcto funcionamiento de los Centros, Servicios y Programas integrados en el terreno competencial del Instituto Foral de Bienestar Social; en permanente interrelación con la actividad de la Secretaría de Servicios Sociales, el programa es garante de la correcta actuación del Organismo Autónomo.

Integran este programa la Dirección-Gerencia, la Subdirección Técnica del Área Económica y Presupuestaria, la Subdirección Técnica del Área de Personal, la Subdirección Técnica del Área de Organización e Informática y la Jefatura de la Secretaría de Servicios Sociales.

La Dirección-Gerencia ha desarrollado las funciones de dirección, organización y supervisión de las funciones y los objetivos propios a desarrollar en los programas de la Institución.

En lo relativo al Área Económico y Presupuestaria, se han desarrollado las funciones de Control Económico y Presupuestario, realizándose la fiscalización y registro contable de los documentos de gastos e ingresos, la tramitación y control de todas las modificaciones presupuestarias necesarias y la liquidación de cuentas del Organismo Autónomo. Con periodicidad mensual se ha remitido información del estado de ejecución del presupuesto a todos los centros gestores de gastos, así como a la Dirección para conocimiento y consiguiente actuación.

En lo concerniente a la Subdirección Técnica del Área de Personal, se aprobó una nueva Relación de Puestos de Trabajo mediante Decreto Foral 60/2010, del Consejo de Diputados de 30 de noviembre. El Consejo de Diputados –mediante Acuerdo 432/2010- aprobó el ajuste de retribuciones del personal funcionario del I.F.B.S. En el BOTHA nº 132, de 19 de diciembre de 2010, se publicó el Acuerdo

## 2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

Kontseiluaren azaroaren 2ko 712/2010 Erabakia argitaratu zen. Horren bidez, INDESA, S.L. foru sozietate publikoaren konstituzioa onartzen da. Erabaki hori Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 838/2010 Erabakiak aldatu zuen izendapen berria ezarriz: INDESA. 2010.

Antolaketa eta Informatika Arloan, SAP langileak kudeatzeko sistema berria ezarri zen. Modu berean, IP telefonia sistema bat ezarri zen. Horri esker, datuen sarearen lineak erabiliz, bulegoen zentroak eta Gasteizko lau zentro handiak barne hartzen dituen barneko sare bat eduki daiteke. Horrela, aipatutako zentroen arteko komunikazioa hobetzen da eta, are garrantzitsuagoa dena, kanpoko deiei eskainitako arreta hobetzen da. Ongizaterako Foru Erakundearen agiriak kalifikatzeko batzordeak agiri sailen deskribapen berriak onartu ditu. General Alava kaleko agiritegiko espedienteak berraztertu eta antolatu dira eta Diputazio kaleko agiritegiko espedienteak berraztertzen hasi da.

Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzak gizarte zerbitzuen arloko pertsonen eta taldeen premiak aztertzeko ildoa jorratzen jarraitu du. Hala, jardun hori burutzerakoan, sistemaren iraunkortasunarekin eta Arabako etorkizuneko gizarte zerbitzuen ereduarekin zerikusia duten zenbait gairi buruzko azterlanak nabarmendu behar dira.

Ezinduen Arloarekin lankidetzan, "Ezintasunen bat duten pertsonentzako egoitza zerbitzuetako arretaren kalitatea - Jardunbide onerako oinarrizko orientabideak" eta jardunbide onerako bi gida osagarri eta zehatzak diseinatu dira.

2010. urtean zehar, 2009. urtean hasi zen Arabako Gizartegintzako Etika Batzordea osatzeko prozesuarekin jarraitu zen. Horren helburua da Gizarte Zerbitzuen eremuan, gorabehera etikoak aztertzeko eta konpontzeko metodologiaren ezagutza zabaltzea eta horretan sakontzea.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileen urteko prestakuntza plana garatu da eta epe ertainerako prestakuntza plana egin da. Era berean, gizarte zerbitzuen eremuan lan egiten duten Arabako

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

712/2010, del Consejo de Diputados de 2 de noviembre, que aprueba la constitución de la Sociedad Pública Foral INDESA, S.L., modificado por el Acuerdo 838/2010, del Consejo de Diputados de 14 de diciembre, para cambiar su denominación por la de INDESA. 2010.

En el Área de Organización e Informática, se implantó el nuevo sistema de gestión de Personal SAP. Así mismo se implantó un sistema de telefonía IP que utilizando las líneas de la red de datos ha permitido disponer de una red interna que engloba los centros de oficinas y los 4 grandes centros de Vitoria, mejorando con ello la comunicación entre los citados centros y lo que es más importante, la atención de las llamadas exteriores. Se han aprobado nuevas descripciones de series documentales por parte de la Comisión Calificadora de Documentos del IFB. Se ha procedido a revisar y ordenar los expedientes del archivo de la c/General Alava y se ha comenzado la revisión de los expedientes del archivo de la c/ Diputación.

La Secretaría de Servicios Sociales, ha continuado la línea de investigación de necesidades de las diferentes personas y colectivos en materia de servicios sociales, destacando en el ejercicio la realización de diferentes estudios sobre temas relacionados con la sostenibilidad del sistema y con el modelo de servicios sociales de futuro en Álava.

En colaboración con el Área de Discapacidad, se ha finalizado el Manual de “Calidad de la Atención en Servicios Residenciales para Personas con Discapacidad – Orientaciones Básicas de Buena Práctica” y se han diseñado dos guías suplementarias de buena práctica específicas.

En el 2010 se ha dado continuidad al proceso formativo de una Comisión Promotora del Comité de Ética en Intervención Social de Álava (CEISA), iniciado en 2009, que tiene por objeto ampliar y profundizar el conocimiento de la metodología de análisis y resolución de conflictos éticos en el ámbito de los Servicios Sociales.

Se ha desarrollado el Plan de Formación anual de la plantilla del IFBS y se ha elaborado un Plan de Formación a medio plazo. Así mismo se ha apoyado económicamente (a través de convocatoria pública) la

beste erakunde batzuek prestakuntza jarduerak egin ditzaten diruz lagundu da (deialdi publiko baten bidez), eta etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen duten erakundeentzako eta adinekoen egoitza pribatuentzako laguntza lerroari eutsi zaio, langileak Alzheimer edo beste gaitz batzuekin zerikusia duten gaietan prestatzeko.

Urteko lehenengo hiruhilekoan edukiak eratzeko, idazteko, egituratzeko, itzultzeko eta egokitzeko lanak amaitu ziren eta horri esker, GOFEko Website berriari hasiera ematea posible izan zen. Modu horretan, erakundearen, herritarren, erabiltzaileen eta profesionalen arteko komunikazioaren horizonteak zabaldu eta hobetu dira.

2010. urtean zehar Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Behatokiaren web orrialdea eguneratu da. Egun dauden gizarte baliabideei buruzko liburuxkak diseinatu ziren eta gizarte zerbitzuen jardun eremuarekin zerikusia zuten argitalpen ugari kaleratu ziren.

Sailak dituen agiri datu baseak eguneratu egin dira eta, hala, bertako langile teknikoek aipatu datu baseak kontsulta ditzakete. Halaber, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko agiriak kalifikatzeko batzordean parte hartu da.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

**1. Administrazio Kontseiluak GOFEren helburua lortzeko onartzen dituen erabakiak, planak eta programak bultzatzea eta garatzea, eta horretarako ekintzak koordinatuta gauzatzea, kalitatea, parte hartzea eta kudeaketaren autonomia irizpidetzat hartuta.**

- Erakundearen premia operatiboen arabera, Administrazio Kontseiluak 38 bilkuretarako dei egin eta bilkura egin zituen. Horietako 12 bilkura ohikoak izan ziren; ohiz kanpokoak, aldiz, 26. Deitutako bilerak egokiak izan dira erakundearen funtzionamenduaren benetako premietarako.

- Erakundearen barruko komunikazio horizontala eta bertikala sustatu, giza baliabideen inplikazioa eta

realización de actividades formativas por parte de diferentes entidades alavesas que colaboran en el ámbito de los servicios sociales, consolidándose también la línea de ayudas a las entidades prestatarias de SAD y a residencias privadas de personas mayores, para la formación de su plantilla en temas relacionados con la enfermedad de Alzheimer y otras demencias.

En el primer trimestre del año, se ultimaron los trabajos de elaboración, redacción, estructuración, traducción y adaptación de contenidos que hicieron posible que viera la luz el nuevo Website del IFBS, ampliando y mejorando así los horizontes de comunicación de la organización con la ciudadanía, con las personas usuarias y profesionales.

Durante el año 2010 se ha actualizado la página web del Observatorio de Servicios Sociales del TH de Álava. Se diseñaron diferentes folletos informativos sobre los recursos sociales existentes y se editaron diversas publicaciones relacionadas con el ámbito de actuación de los Servicios Sociales.

Se han mantenido actualizadas las bases de datos documentales con que cuenta el Departamento, facilitando su consulta al personal técnico del mismo y se ha participado en la Comisión Calificadora de Documentos del IFBS.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

**1. Impulsar y desarrollar los acuerdos, planes y programas aprobados por el Consejo de Administración para la consecución de la misión del IFBS, ejecutando las acciones coordinadamente, con criterios de calidad, participación y autonomía en la gestión.**

- En función de las necesidades operativas del Instituto se han convocado y tuvieron efecto 38 reuniones del Consejo de Administración, 12 de ellas de carácter ordinario y 26 de carácter extraordinario. Las sesiones convocadas, han sido las adecuadas a las necesidades reales de funcionamiento del Instituto.

- Se ha impulsado la comunicación horizontal y vertical en la Organización como herramienta de

motibazioa areagotzeko, bai eta talde lana bultzatzeko ere; urtean zehar guztira 43 bilera egin dira -astero- eta beste 11, berriz, hilero; horiek guztiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendaritza taldearekin. Horren ildotik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zentro eta zerbitzuetako arduradunekin bilerak egin dira eta, kudeaketari dagokionez, autonomiarako bidea eman da.

2. **Ekonomia eta finantzak kontrolatzea, bai eta arloen kudeaketa eta kostuen zentroak ere, ekonomia edukia duten betebehar eta eskubideak onartzea dakarten egintzei dagokienez, esate baterako kobrantza eta ordainketak; hori guztia aurrekontua egiten denetik azkenik kitatzen den arte.**

- Aurrekontuak gauzatzerakoan egon diren eragiketa guztien fiskalizazioa eta kontabilitate erregistroa egin da, bai aurrekontuko eragiketei bai aurrekontuz kanpoko eragiketei dagokienez, bai eta ondare kontabilitatearen gainekoak ere.
- Aldundiko Kontuhartzailetza Zerbitzuarekin koordinatuta, honakoen espedienteak izapidetu dira, aldez aurretik kontu hartzea egiteko: erosketa eta hornidurak, sei mila eurotik gorako dirulaguntzak, hitzarmenak, laguntzen deialdi publikoa eta lehiaketa publikoak eta horien ebazpenak.
- GOFEren Kudeaketa Arloekin lankidetzan jardunez, 2010 aurrekontuaren proiektua eratu zen. Horrez gain, partiden jarraipena eta kontrola egin da eta, hala, beharrezkoak diren aurrekontu transferentzien eta kreditu gaikuntzen izapideak egin dira, baita likidazioa ere.
- Diruzaintzako saldo erabiligabeak ahalik eta gehien murrizteko asmoz, hirugarrenentzako hileko ordainketa obligazioak puntualki gauzatu dira (zerbitzu eta hornidurengatik edo transferentzia arruntengatik edo kapital transferentziengatik), Arabako Foru Aldundiko Finantza Kudeaketarako Zerbitzuarekin koordinatuz, hileko funts horniduren bitartez.

3. **Sistema desberdinak hobetzea egitura**

implicación y motivación de los RRHH y del trabajo en equipo, manteniéndose, a lo largo del año, un total de 43 reuniones de carácter semanal y otras 11 de carácter mensual con el equipo directivo del IFBS. Así mismo, se han celebrado diferentes reuniones con las personas responsables del conjunto de centros y servicios del IFBS, propiciando la autonomía en la gestión.

2. **Control Económico-Financiero y de Gestión de Áreas y Centros de Coste en lo relativo a los actos que den lugar al reconocimiento de derechos y obligaciones de contenido económico, tanto cobros como pagos, desde la elaboración del presupuesto hasta su liquidación final.**

- Se ha efectuado la fiscalización y registro contable de todas las operaciones habidas en la ejecución de los presupuestos, tanto operaciones presupuestarias como operaciones extra-presupuestarias, así como de la contabilidad patrimonial.
- En coordinación con el Servicio de Intervención de Diputación se han tramitado, para su intervención previa, todos los expedientes de Compras y Suministros, Subvenciones superiores a seis mil euros, Convenios, Convocatoria Pública de Ayudas y Concursos Públicos y sus Resoluciones respectivas.
- En colaboración con las Áreas de Gestión del IFBS, se elaboró el proyecto de Presupuesto 2010 y se ha realizado el seguimiento y control de sus partidas, tramitándose las transferencias presupuestarias y Habilitaciones de Crédito necesarias, así como la liquidación.
- Tratando de reducir al mínimo los saldos ociosos de Tesorería, se han atendido puntualmente las obligaciones mensuales de pago a terceros (por servicios y suministros o por transferencias corrientes o de capital) en coordinación con el Servicio de Gestión Financiera de Diputación, mediante las provisiones de fondo mensuales.

3. **Mejora de los diferentes sistemas en lo que se refiere a organización estructural, definición de**

**antolakuntzari, lan kargen banaketari eta informatikako tresnak erabiltzeari dagokionez**.

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen agiriak kalifikatzeko batzordeak agiri sailen deskribapen berriak onartu ditu (KGP, EGL, GOF, ELZ eta LTZ) eta, ondoren, Arabako Foru Administrazioko Agirien Ebaluazio eta Hautaketarako Batzordeak berretsi egin ditu.
- General Alava kaleko agiritegiko espedienteak berraztertu, antolatu eta garbitu dira eta Diputazio kaleko agiritegiko espedienteak berraztertzen hasi da.
- Langileak euskalduntzeko prozesuarekin jarraitzearen ondorioz, ekitaldiaren amaieran 187 hizkuntza eskakizun egiaztatu dira guztira, derrigortasun datadun lanpostuetarako.
- “Resiplus” aplikazioaren ezarpena zabaldu da, erabiltzaileen kudeaketa sistema gisa, ezintasunen bat duten pertsonen arloan, pisuetan eta zentro okupazionaletan bi proba pilotu eginez.
- INDESArako jarduerak ebaluatzeko aplikazio berria garatu eta ezarri da. Modu berean, INDESAko soldata orrian aldagarriak diren zenbait kontzepturen datuak SAPeko datu basean deskargatzea ahalbidetzen duen sistema prestatu da.
- Giza Baliabideetako SAP langileen kudeaketa sistema berria ezarri zen.
- IP telefonia sistema bat ezarri da. Horri esker, datuen sarearen lineak erabiliz, bulegoen zentroak eta Gasteizko lau zentro handiak barne hartzen dituen barneko sare bat eduki daiteke. Horrela, aipatutako zentroen arteko komunikazioa hobetzen da eta, are garrantzitsuagoa dena, kanpoko deiei eskainitako arreta hobetzen da. Izan ere, zenbait zentrotako operadorek jaso ahal dituzte.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzenean kudeatzen dituen eta Laudioko eta Amurrioko Udalek kudeatzen dituzten Gizarte Larrialdietarako

**procesos, distribución de cargas de trabajo y utilización de herramientas informáticas.**

- La Comisión Calificadora de Documentos del IFBS ha aprobado nuevas descripciones de series documentales (PNC, LISMI, FBS, SAD y TEPA) que, posteriormente, han sido ratificadas por la Comisión de Evaluación y Selección de Documentación de la Administración Foral Alavesa.
- Se ha procedido a revisar, ordenar y expurgar los expedientes del archivo de c/ General Alava y se ha comenzado la revisión de los expedientes del archivo de la c/ Diputación.
- Como consecuencia del proceso de euskaldunización del personal, al final del ejercicio la cifra de perfiles acreditados en puestos con preceptividad vencida ascendía a 187 personas.
- Se ha extendido la implantación de la aplicación “Resiplus” como sistema de gestión de los usuarios mediante dos pruebas piloto en los pisos y los centros ocupacionales del área de personas con discapacidad.
- Se ha desarrollado e implantado una nueva aplicación de evaluación al desempeño para INDESA. Asimismo, se ha preparado un sistema que permite descargar los datos de los distintos conceptos variables de la nómina de INDESA en la base de datos de SAP.
- Se implantó el nuevo sistema de gestión de Personal SAP RRHH.
- Se ha implantado un sistema de telefonía IP que, utilizando las líneas de la red de datos, ha permitido disponer de una red interna que engloba los centros de oficinas y los 4 grandes centros de Vitoria, mejorando con ello la comunicación entre los citados centros y, lo que es más importante, la atención de las llamadas exteriores al ser posible recibirlas por parte de los operadores de varios de los centros.
- Se ha establecido un sistema de envío periódico de la información de las Ayudas de Emergencia Social gestionadas directamente por el IFBS, así como de las que gestionan los Ayuntamientos de Llodio y

Laguntzei buruzko informazioa aldizka bidaltzeko sistema ezarri da.

- Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari buruzko datuak aldizka bidaltzeko sistema sistemaren errekerimendu berriei egokituta mantendu da.

4. **Ondasunen erosketaren eta hornidura eta zerbitzuen lehiaketa bidezko kontratazioaren kudeaketa zentralizatua hobetzea; ahalik eskaintza gehien izatea izango da xedea.**

- Ekitaldi honetan modu orokorrean aplikatu da hornidurak, zerbitzuak eta zerbitzu publikoen kudeaketa lehiaketa publikoen bitartez esleitzeko prozedura, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen duen bezala (Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena). Zenbait espedienteren luzapenak onetsi dira, kontratu luzapenen bidez. Hona hemen zein diren: Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko espedienteenak, Zerbitzuak Egiteko espedienteenak eta Hornidurako espedienteenak (Osasun arloko materiala, elikagaiak eta garbiketako produktuak).

- Horrez gain, hainbat kontratazio espediente berri izapidetu da, bai zerbitzu publikoko kudeaketakoak bai zerbitzu eta hornidurakoak; hori guztia kontratu egokien bidez egin da.

- Espediente txikietarako eskaintza kopururik handienaren irizpidea mantendu da, prezioa eta kalitatea aztertuta.

5. **GOFEko giza baliabideak kudeatzea, funtzio publikoaren araudian aurreikusitako sistemen bidez: izendapenak, zerbitzuen batzordeak, postuak hornitzeko lehiaketak eta LEP, negoziazio kolektiboari aurre egitea eta laneko segurtasuna eta osasuna bultzatzea.**

- 2010eko abenduaren 20ko 143. ALHAOn, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 30ko 60/2010 Foru Dekretua argitaratu zen. Horrek lanpostuen zerrenda berria onartu zuen.

- Azaroaren 17an Gizarte Politikaren eta Gizarte

Amurrio.

- Se ha mantenido adaptado el sistema de envío periódico de datos relativos al Sistema para la Autonomía y atención a la Dependencia a los nuevos requerimientos del sistema.

4. **Mejora en la gestión centralizada de adquisiciones de bienes y contratación de suministros y servicios mediante concursos públicos, contrastando máxima concurrencia de ofertas.**

- Durante este ejercicio se ha aplicado, de forma generalizada, el procedimiento de adjudicación de Suministros, Servicios y Gestión de Servicios Públicos, mediante el sistema de Concurso Público tal y como establece el Real Decreto Legislativo 2/2.000 de 16 de Junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Se han aprobado prórrogas de expedientes de Gestión de Servicios Públicos, de expedientes de Prestación de Servicios y de expedientes de Suministros de diversos artículos de Material Sanitario, Productos Alimentación y Productos de Limpieza, a través de las prórrogas de sus correspondientes contratos.

- Además, se han tramitado diferentes expedientes nuevos de contratación, de Gestión de Servicio Público, de Servicios y de Suministros, a través de sus respectivos contratos.

- Para los expedientes menores, se ha mantenido el criterio de máxima concurrencia de ofertas con análisis de precio y calidad.

5. **Gestionar recursos humanos del IFBS mediante sistemas previstos en la normativa de función pública: nombramientos, comisiones de servicios, concurso provisión puestos y OPE, así como afrontar la negociación colectiva e impulsar seguridad y salud laboral.**

- En el BOTHA nº 143, de 20 de diciembre de 2010, se publicó el Decreto Foral 60/2010 del Consejo de Diputados de 30 de noviembre, que aprobó la nueva Relación de Puestos de Trabajo.

- En el BOTHA nº 131 de 17 de noviembre se publicó la Orden 83/2010, de la Diputada de Política Social

Zerbitzuen Saileko foru diputatuaren 83/2010 Agindua argitaratu zen ALHAOn (131. zk.). Horren bitartez, 1/2009 zenbakiko lehiaketaren ondoko aldiaren deialdia egin zen GOFEko 20 lanpostu betetzeko.

- 2010eko ekainaren 23ko ALHAOn (69. zenbakia) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren ebazpena argitaratu zen, 2010eko ekainaren 8koa. Horren bitartez, Langile Arloko zuzendariorde tekniko lanpostua izendapen libreko sistemaren bidez betetzeko iragarri zen, deialdi hori bete gabe geratu zen ondorengo ebazpen baten bidez.

- Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren II. Eranskinean ezarritakoaren arabera, 2010eko ekitaldian Zerbitzuen Batzorde hauek argitaratu dira GOFEren Zuzendaritza-Gerentziaren deialdien bitartez:

  - Pertsona funtzionarioak Oiongo egoitzatik lekualdatzeko, lantokia egokitzeko lanak egiten ziren bitartean.
  - Langile Arloko zuzendariorde tekniko lanpostua betetzeko.
  - Txagorritxuko egoitzako “A” zuzendari lanpostua betetzeko
  - Samaniego egoitzako “B” zuzendari lanpostua betetzeko
  - Lau erizaintzako laguntzaile lanpostu betetzeko eta erizain ikuskatzaile lanpostu bat betetzeko Aranako lagundutako eguneko zentrorako.
  - Zerbitzuen batzordeko deialdia osasunarekin lotutako arrazoiak direla eta, bost lanpostu betetzeko, pertsona funtzionarioek euren osasun egoerarekin bat datozen lanpostuak behin-behinean eskura ditzaten

- 2010eko abuztuaren 4ko 87. ALHAOn, 432/2010 Erabakia argitaratu zen, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 6koa. Honen bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko funtzionarioen ordainsariak doitzea onartzen da 2010. urterako.

- 2010eko abenduaren 19ko 132. ALHAOn,

y Servicios Sociales, por la que se procedió a convocar la Fase de Resultas del Concurso nº 1/2009, para la provisión de 20 puestos de trabajo en el IFBS.

- En el BOTHA nº 69 de 23 de junio de 2010 se publica la Resolución de la Presidenta del Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social de fecha 8 de junio de 2010 por la que se convoca la provisión, por el sistema de libre designación del puesto de Subdirector/a Técnico/a del Área de Personal, convocatoria que quedó desierta por resolución posterior.

- En aplicación de lo establecido en el Anexo II del Decreto Foral 59/2007, del Consejo de Diputados de 24 de julio, se han publicado durante el ejercicio 2010 mediante Convocatorias de la Dirección-Gerencia del IFBS, las siguientes Comisiones de Servicio:

  - Para el traslado de las personas funcionarias de la Residencia de Oyon durante las obras de adecuación del centro de trabajo
  - Para la cobertura del puesto de Subdirector/a Técnico/a del Área de Personal
  - Para la cobertura del puesto de Director/a “A” de la Residencia de Txagorritxu
  - Para la cobertura del puesto de Director “B” de la Residencia Samaniego
  - Para la cobertura de cuatro puestos de auxiliar de enfermería y una enfermera supervisora para el Centro de Día Asistido de Arana
  - Convocatoria de comisión de servicios por motivos de salud en cinco puestos de trabajo para facilitar el acceso temporal de personas funcionarias a puestos más acordes con su estado de salud

- En el BOTHA nº 87 de 4 de agosto de 2010, se publicó el Acuerdo 432/2010, del Consejo de Diputados de 6 de julio, que aprueba el ajuste de retribuciones del personal funcionario del Instituto Foral de Bienestar Social para el año 2010.

- En el BOTHA nº 132, de 19 de diciembre de 2010,

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 2ko 712/2010 Erabakia argitaratu zen. Horren bidez, INDESA, S.L. foru sozietate publikoaren konstituzioa onartzen da. Erabaki hori Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 838/2010 Erabakiak eta azaroaren 16ko 753/2010 Erabakiak aldatu zuten izendapen berria ezarriz: INDESA.

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean LEP argitaratzea negoziazio fasean dago.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean eta INDESAn lan arriskuak prebenitzeari dagokionez, laneko arriskuen kudeaketa osoko sistema garatzeko asmoz, 2010. urterako aurreikusitako jarduerak burutu dira: osasuna babesteko jarduera zehatzak, lan arriskuen eta lan baldintzen ebaluazioaren berraztertzea, larrialdietarako planak eratzea, lan arriskuen arloko informazioa eta prestakuntza, kanpoko indarkeria eta jazarpen moral edo psikologikoen aurrean jarduera protokoloen funtzionamendua, istripuak ikertzea eta prebentzioaren arloko hitzarmenak berriztatzea.

**6. Erakundeari atxikitako ondasun higiezinak behar bezala mantentzeko behar diren ekintzak ezartzea eta kontrolatzea Arabako Foru Aldundiko Ondasun, Arkitektura eta Mantentze zerbitzuekin elkarlanean.**

- Erakundeari atxikitako higiezinen zerrenda eguneratuta mantendu da, lurren eta higiezinen balorazioa bereiziz, eta horiek eta haien instalazioak eta ekipoak egoera egokian mantentzeko beharrezkoak diren gastuak egin dira.
- Ondare ondasunen segurtasunari dagokionez, larrialdietako planak eguneratuta mantendu dira, langileriarentzat gaur egun dauden prebentziorako eta suak itzaltzeko baliabideen prestakuntza eta trebakuntzarako ikastaroak egin dira, simulazioen bitartez, eta zentroetan segurtasun kotak handitzen saiatu dira.
- 1.000 eurotik gorako balioa duten elementu guztien inbentarioaren jarraipena egin da, erakundearen

se publicó el Acuerdo 712/2010, del Consejo de Diputados de 2 de noviembre, que aprueba la constitución de la Sociedad Pública Foral INDESA, S.L., modificado posteriormente por el Acuerdo 838/2010, del Consejo de Diputados de 14 de diciembre, para cambiar  su denominación por la de INDESA, S.L. y el Acuerdo 753/2010, de 16 de noviembre.

- La publicación de la OPE en el IFBS se encuentra en fase de negociación.
- Con referencia a la prevención de riesgos laborales en el IFBS e INDESA, se han realizado las acciones previstas para  2010 con el objeto de desarrollar el sistema integral de gestión de riesgos laborales: actividades específicas de vigilancia de la salud, revisión de evaluación de riesgos y condiciones de trabajo, elaboración de planes de emergencias, información y formación en materia de riesgos laborales, funcionamiento de los Protocolos de Actuación ante la violencia externa y en supuestos de acoso moral o psicológico, investigación de accidentes y renovación de los convenios en materia de prevención.

**6. Establecimiento y Control, en coordinación con los Servicios de Patrimonio, Arquitectura y Mantenimiento de la D.F.A., de las acciones necesarias para mantener correctamente los bienes inmuebles afectos al Instituto.**

- Se ha mantenido actualizada la relación de inmuebles adscritos al Instituto separando la valoración de los terrenos y los inmuebles y se han realizado las acciones de gastos necesarias para su mantenimiento en correcto estado, así como sus instalaciones y equipos.
- Respecto a la seguridad de los Bienes Patrimoniales, se han mantenido actualizados los Planes de Emergencia, realizando cursos de formación y adiestramiento para el personal en el uso y utilización de los medios de prevención y extinción existentes, mediante la realización de simulacros, tratando de aumentar las cotas de seguridad en los centros.
- Se ha realizado el seguimiento del inventario de contenidos para todos los elementos de valor

zerbitzuak kudeatzeko zentro bakoitzean.

**7. Arabako Lurralde Historikoan dauden gizarte beharrizanak eta adierazitako zerbitzuen eskakizunak aztertzea, horiek asebetetzeko beharrezkoak diren baliabideak planifikatze eta programatze aldera**

2010. urtean aurreikusitako ikerketak eta txostenak egin ziren, eta, era berean, aurreko ekitaldian hasitako azterlanak bukatu ziren. Zehazki, honako azterketa hauek egin ziren:

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kudeaketa atalekin elkarlanean arituz, honako ikerketa hauek egin dira:

- Arabako gizarte zerbitzuen prestazio ereduak aztertu eta alderatu eta etorkizunean izango den eredua definitu.
- Araban gizarte zerbitzuek lana sortzeko daukaten ahalmena.
- Araban izaera soziosanitarioa duten elkarteen beharra, lokalei dagokioenez.
- Alzheimer edo beste gaitz batzuk dituzten adinekoentzako gaueko zentroak egiteko beharrak.
- Berdintasun politikei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren ibilbide historikoari buruzko azterlanean parte hartzea.
- Lehenengo aldiz egoitza baliabideetan bizi diren adinekoei zuzendu den eta osasuna hizpide duen inkesta egiteko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lan egin da.
- 2009. urtean bukatu zen azterlana,“Araban prezio publikoen sistema berria ezartzeko zenbait aukeren ondotik sortutako eragin ekonomikoari buruzko balioespena”, ikertu egin da.

Honako txosten hauek egin ziren:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatzen dituen prestazioetan eta zerbitzuetan zerga

unitario superior a 1.000 euros y para cada uno de los centros de gestión de servicios del instituto.

**7. Analizar las necesidades sociales existentes y las demandas de servicios expresadas en el Territorio Histórico de Álava, a fin de planificar y programar los recursos necesarios para satisfacción de las mismas**

Durante el año 2010 se realizaron las investigaciones e informes previstos, al tiempo que se finalizaron los estudios iniciados en el ejercicio anterior. En concreto, los trabajos desarrollados fueron los siguientes:

En colaboración con las áreas de gestión del IFBS, se han realizado las siguientes investigaciones:

- Estudio comparativo de Modelos de prestación de Servicios Sociales y definición del modelo futuro de Álava.
- El potencial de generación de empleo de los Servicios Sociales en Álava.
- Necesidades de locales de las Asociaciones de carácter socio-sanitario de Alava.
- Necesidades de creación de Centros de Noche para personas mayores con Alzheimer u otras demencias.
- Participación en el estudio sobre Recorrido histórico de la DFA en relación a las políticas de Igualdad.
- Se ha colaborado con el departamento de Sanidad del Gobierno Vasco para la realización de la Encuesta de Salud dirigida, por primera vez, a personas mayores que viven en recursos residenciales.
- Se realizó el análisis del estudio finalizado en 2009 “Estimación del impacto económico derivado de las diversas opciones para el establecimiento de un nuevo sistema de precios públicos en Álava”.

Se elaboraron los siguientes informes:

- Informe sobre el Fraude Social en las Prestaciones

iruzurrari buruzko txostena

- 2007-2010 epealdian, Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeko eta haien arretarako legearen aplikazioa hizpide duen txosten monografikoa.
- Mendekotasunari lotutako gaiei buruzko txosten monografikoak, Arartekoak, IMSERSOk, eta Ogasun Foru Sailak hala eskatuta.
- Baterako ordainketa, Gizarte Zerbitzuen Zorroa, eremu soziosanitarioa...sistemarekin zerikusia daukaten zenbait txostenen eraketa koordinatu zen.

Plangintzaren arloan, zenbait planen ebaluazio batzordean edota diseinuan parte hartu da.

- Gizartearen arloan, Arabako Foru Aldundiko hausnarketa prozesuan parte hartu zen, Arabako etorkizuneko gizarte zerbitzuen eredua ezartze aldera.
- Gizarte Ongizaterako Lurralde Kontseiluaren eraketa koordinatu zen, konstituzioaren dekretua eta horren funtzionamenduaren araudia sortuz.
- Honako hauen eraketan eta jarraipenean parte hartzea (gizarte zerbitzuei buruzko zatiari dagokionez):
